



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

**UDALBATZAK 2015KO URTARRILAREN 13AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO
BILKURA URGENTEA**

BERTARATUAK:

Jesus Peñagarikano Labaka
Eugenio Lopetegi Artano
Itziar Saizar Ibarzabal
Oihane Sarasola Nosellas
Hanot Karrera Amondarain
Naiara Lopetegi Aiestaran
Laida Zubillaga Garmendia
Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Ibarran, **bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hamahiruan** arratsaldeko zazpirak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ez-ohiko osoko bilkura urgentea egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Jesus Peñagarikano Labaka, eta behin-behineko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave aritu zen.

EZ DIRA AGERTU:

M^a Iciar Jauregui Huarte
M^a Consuelo Romeo Aya
Aitor Gonzalez Blanco

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hamahiruan, arratsaldeko zazpiak direnean, Udalbatzak bilera egin du udaletxeko bilera-aretoan eta goian adierazitako jaun-andreak elkartu dira ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate jauna izan da, eta behin-behineko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Egintza hasi aurretik Idazkariak aipatzen du ezinbestekoa da Toki Araubidearen Oinarrizko Legearen 46.2. b artikulua araberak; gaur ospatuko den Udalbatzaren urgentziatzko izaeraren berrespena egitea Udalbatzak. Bildu diren 8 zinegotzietan, gaur ospatuko den udalbatzaren urgentziatzko izaera hau berresten duten galdetzen die Idazkariak eta aho-batez baietz erantzuten dute (8 aldeko boto).

1) Jon Mintegiaga ibartarraren eta beste 15 euskaldunen atxiloketa salatzeko BILDUK aurkezturiko deklarazio instituzionala.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA

JON MINTEGIAGA IBARTARRAREN ETA BESTE 15 EUSKALDUNEN ATXILOKETA SALATZEKO BILDUK AURKEZTURIKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA.

Bildu Koalizioak honako deklarazio instituzionala aurkezten dio Ibarako Udalbatzari, honek onar dezan:

Deklarazio instituzionala:

Gaur Guardia Zibilak 16 euskal herritar atxilotu ditu. Atxilotu gehienak abokatuak dira, euskal presoen abokatuak, hain zuzen ere. 16 atxilotuen artean aurkitzen da Jon Mintegiaga ibartarra ere. Presoen eskubideen defentsan makina bat urtez lanean ibilia. Lehendik ere ezagutzen du Mindek atxiloaldia eta haren senideek ere dispertsioa urte luzeetan sufritu dute. Giza oinarrizko eskubideen kontrako eraso oso larria izanda, Ibarako Udal honek, lehenik eta behin, bere elkertasuna adierazten dio Jon Mintegiaga ibartarrari eta gainerako atxilotuei eta beren senitartekoei eta atxilotuak lehenbailehen aska ditzatela eskatzen du. Era berean, honako hau ere adierazten du:

- 1.- Atxiloketa hauek Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasunaren bide berriaren kontrako eraso da. Estatuaren itxikeriak eta bortizkeriak euskal jendartearen bake eta normalizazio politikorako borondate argia zapuztu nahi dute.
- 2.- Abokatuak funtzio berezia eta ezinbestekoa dute pertsonen giza eta defentsa eskubideak babesteko; are gehiago eredu demokratiko batean. Kasu honetan presoen eskubideen defentsan aritzen diren abokatuak atxilotu ditu Guardia Zibilak. Presoei dagozkien giza eskubideen urraketan lekuko zuzenak dira eta abokatuak atxiloketa hauek defentsarako eskubidea ere urratu dute.
- 3.- Estatu espainolak, berriro ere, bere izaera ez demokratikoa erakutsi du. Urtarrilaren 10ean milaka euskal herritarren aldarrikapenari jaramonik ez eta oinarrizko eskubideak urratzearen aldeko apustua egin du.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (8 BILDU) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Jon Mintegiaga ibartarraren eta beste 15 euskaldunen atxiloketa salatzeiko Bildu Koalizioak aurkezturiko deklarazio instituzionala.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Gara, Noticias de Gipuzkoa eta Diario Vasco komunikazio bideei.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Alkateak hitza hartzeko aukera ematen die Udalbatzara bertaratu diren ibartarrei. Ibartar batek oposizioa Udalbatzara deitua izan den galdetzen du eta Alkateak baiezkoa erantzuten dio. Herritar baten atxiloketan eta gehienbat giza-eskubideen aurkako urraketa bat egiten denean beste alderdiek ezer ez esatea (oposizioak alegia) larria dela adierazten du herritarrak.

Alkateak agertzen du, EAJaren kasuan, agenda bateraezintasun arazoa dela adierazi diola alderdi honetako zinegotzi batek.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamabost direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.